



EMAITZEN TXOSTENA

2014-2016 Berdintasun Plana

(Eranskina: EKINTZA PLANA 2017)



AURKIBIDEA

0. SARRERA
1. LABURPEN EXEKUTIBOA.
2. BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA HOBETZEKO NEURRIAK.
3. BERDINTASUN GAJETAN ESKU HARTZEKO ARDATZAK.

ERANSKINA: EKINTZA PLANA 2017



0. SARRERA

2014-2016 Berdintasun Planaren helburua da emakume eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasuna bermatzea, eta baita ondoko helburuak betetzea ahalbidetuko duen kudeaketa tresna bilakatzea ere:

- Berdintasunaren kultura indartzea SPRI Taldearen barruan.
- Ardura postuetan emakumeen presentzia handitzea.
- Prestakuntza Planean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna aintzat hartzea.
- Lan, familia eta norbere bizimoduaren kontziliazioa ahalbidetzea.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatzea komunikazioan, hizkuntzan eta irudian.
- Sexu jazarpeni eta jazarpen psikologikoei aurre egiteko Protokolo bat egin eta ezartzea.
- Berdintasuna sustatzea sozietatean eta gizarteari jakinaraztea entitateak berdintasunarekiko hartu duten konpromisoa.

Plan hau izan da 2013ko ekainean sortu zen Berdintasun taldeak egin duen ekintzarik garrantzitsuen, eta Plan egingarri, dinamiko, zeharkako eta integratzailetzat planteatu da.

SPRI Taldearen Berdintasun Planak, alde batetik, garatzen du Eusko Jaurlaritzaren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen esparru arautzailea eta, bestetik, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren jarraibideak. X. Legegintzaldirako Jarraibideak. VI. Planean jasotako helburuek hainbat erronka planteatzen dituzte, ez bakarrik administrazioari dagozkionak, esaterako, administrazio barruko antolakuntza edota barne funtzionamendua aldatzea, baizik eta baita ere gizarte arlokoak, balio aldaketa, emakumeak ahalbidetzea, gizarte antolakuntza arduratsua edota emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea sustatzeko.




VI. Plana bi atal nagusitan egituratzen da: Gobernantza hobetzeko berdintasunaren aldeko neurriak eta berdintasun gaitan esku hartzeko ardatzak; beraz, SPRI Taldeko Berdintasun Plana ere horrela egituratu da. Horren ondorioz, emaitzak ere modu berean aurkeztuko dira.



1. LABURPEN EXEKUTIBOA

	2014		2015		2016		2014-2016 Guztira	
	Aurreikusita	Eginda	Aurreikusita	Eginda	Aurreikusita	Eginda	Aurreikusita	Eginda
Gobernantza hobetzeko berdintasunaren aldeko neurriak	7	7	10	9	9	10	26	26
Berdintasun gaietan esku hartzeko ardatzak	7	10	8	10	9	11	24	31
EKINTZAK GUZTIRA	14	17	18	19	18	21	50	57
Betetze-maila %-tan	%121		%106		%117		%114	

%100etik gorako balioak azaltzen dira Planaren barruan aurreikusita ez zeuden eta bere garapenean sortu diren ekintza batzuk egin direlako.






GOBERNANTZA HOBETZEKO BERDINTASUNAREN ALDEKO NEURRIAK

	2014		2015		2016		2014-2016 Guztira			
	Aurreikusita	Eginda	Aurreikusita	Eginda	Aurreikusita	Eginda	Aurreikusita	Eginda	Betetze-maila %tan	
G1	Berdintasunerako planifikazioa areagotzea eta hobetzea.	1	1	0	0	1	0	2	1	%50
G3	Berdintasunerako koordinazio egiturak sortzea eta indartzea.	3	3	2	2	2	2	7	7	%100
G4	Estatistika eta azterlanetan genero ikuspegia txertatzea.	0	0	0	0	2	2	2	2	%100
G5	Prestakuntza jardueretan genero ikuspegia txertatzea.	2	2	3	2	0	0	5	4	%80
G7	Hizkuntzaren edota beste komunikazio elementu batzuen erabilera ez-sexista egitea.	0	0	3	4	1	2	4	6	%150
G8	Araudian berdintasunaren printzipioa barneratzea.	0	0	1	0	0	1	1	1	%100
G9	Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea.	1	1	1	1	0	0	2	2	%100
G11	Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunari buruzko xedapenak jasotzea.	0	0	0	0	3	3	3	3	%100



Medidas para mejorar la gobernanza en materia de igualdad






BERDINTASUN GAIETAN ESKU HARTZEKO ARDATZAK

		2014		2015		2016		2014-2016 Guztira		
		Aurreiku sita	Eginda	Aurreiku sita	Eginda	Aurreiku sita	Eginda	Aurreiku sita	Eginda	Betetze-maila %-tan
1. ardatza	P.1 Balio aldaketa	2	4	2	3	2	3	6	10	%167
	P.3 Norberaren ahalduntzea laguntzea	0	1	0	1	2	3	2	5	%250
	P.4 Ahalduntze soziala eta politikoa laguntzea	2	2	1	1	2	2	5	5	%100
II. ardatza	P.5 Erantzunkidetaketa eta denboraren erabilera berriak	1	1	0	0	0	0	1	1	%100
	P.6 Kontziliazioa eta prebentzioa	0	0	2	2	1	1	3	3	%100
III. ardatza	P.7 Sentsibilizazioa eta prebentzioa	2	2	2	2	2	2	6	6	%100
	P.8 Antzematea eta arreta	0	0	1	1	0	0	1	1	%100



Ejes de intervención en materia de igualdad





2. GOBERNANTZA HOBETZEKO BERDINTASUNAREN ALDEKO NEURRIAK

VI. Planak 13 neurriko multzo bat ezarri du Gobernantzaren eremurako, 4/2005 Legean definitutako eskakizunekin bat datozenak:

G1	Berdintasunerako planifikazioa areagotzea eta hobetzea.
G2	Berdintasunerako administrazio unitateak sortzea eta indartzea.
G3	Berdintasunerako koordinazio egiturak sortzea eta indartzea.
G4	Estatistika eta azterlanetan genero ikuspegia txertatzea.
G5	Prestakuntza jardueretan genero ikuspegia txertatzea.
G6	Enplegu publikoan sartzeko hautaketa prozesuetan eta sustapeneoetan berdintasunari dagozkion edukiak txertatzea.
G7	Hizkuntzaren edota beste komunikazio elementu batzuen erabilera ez-sexista egitea.
G8	Araudian berdintasunaren printzipioa barneratzea.
G9	Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea.
G10	Plan sektorialetan eta zeharkakoetan genero ikuspegia jasotzea.
G11	Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunari buruzko xedapenak jasotzea.
G12	Epaimahaietan emakume eta gizonen ordezkartza orekatua sustatzea.
G13	Kontsulta eta parte-hartze organoetan genero ikuspegia txertatzea.

Ondoren atal honetan 2014-2016 epealdian SPRI Taldeak egindako jarduerak zehaztuko ditugu:



G1 BERDINTASUNERAKO PLANIFIKAZIOA AREAGOTZEA ETA HOBETZEA

4/2005 Legeak emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko beharra arautzen du hainbat artikulutan, eta eskakizun hori ezartzen du, bai administrazioen hainbat mailatarako (15. artikulua) eta bai partaidetza nagusia kapital publikoarena duten enpresetarako (40. artikulua).

VI. Planak lehentasunezkoztat jotzen dituen eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak (aurrerantzean EGAS) ¹ bere gain hartu dituen helburuen artean, SPRI Taldeak ondoko hauetan eragin du:

G1.2 PARTAIDETZA NAGUSIA KAPITAL PUBLIKOARENA DUTEN ETA BERDINTASUNERAKO PLAN BAT DUTEN ENPRESEN KOPURUA HANDITZEA

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
SPRI Taldeko Berdintasun Plana definitzea	SPRI taldea	2014	2014AN EGINDA
SPRI Taldearen barruan berdintasun pertzepzioari buruzko inkesta bat egitea	SPRI taldea	2016	2017RAKO GERORATUTA

G2 BERDINTASUNERAKO ADMINISTRAZIO UNITATEAK SORTZEA ETA INDARTZEA

Beren sustapenerako langile nahikoak izango dituzten berdintasunerako erakunde, organo edo unitateak sortzea gakoetako bat da euskal erakunde guztietan berdintasun politikak txertatzea uztarketa sustatzeko. Horiek sortzeaz edo egoteaz gain, oso garrantzitsua da, halaber, honako hauek aintzat hartzea: erakunde organigraman duten lekua, osatzen dituzten pertsonen kopurua eta profila eta horien dedikazioa.

VI. Planak lehentasunezkoztat jotzen dituen eta EGASek bere gain hartu dituen helburuen artean, SPRI Taldeak hauetan eragin du:

¹ Txosten hau dagokion Plangintzaldian, Sail honen izena "Ekonomia Garapena eta Lehiakortasuna" zen.



BERDINTASUNERAKO UNITATEAK EDO TEKNIKARIAK DITUZTEN ETA EUSKO

G2.2 JAURLARITZAKO SAILEI ATXIKITA DAUDEN ERAKUNDE AUTONOMO ETA PUBLIKOEN KOPURUA HANDITZEA

SPRI Taldea ez da erakunde autonomoa, ezta erakunde publikoa ere.

SPRIk EGASeko Sail arteko Lantaldean (SLT) parte hartzen du eta SPRI Taldearen barruan Berdintasun talde bat osatu du, sozietate bakoitzeko ordezkari banak eta SPRIko Enpresa Batzordeko bi ordezkari osatua.

G3 BERDINTASUNERAKO KOORDINAZIO EGITURAK SORTZEA ETA INDARTZEA

Koordinazioa kudeaketaren oinarritzko helburu bat da, eta bereziki beharrezkoa da erakundea konplexua bada edo arlo berean diharduten erakundeak konplexuak badira. Zeharkakotasun estrategia bat maila eta funtzio guztietan bultzatu nahi denean, helburua ezinbesteko bihurtzen da; halaxe esan dute EAEn arlo horretan diharduten profesionalak berdintasunerako politikak hobetzeko azken urteetan egin diren foroetan.

VI. Planak lehentasunezko zatitza jotzen dituen eta EGASek bere gain hartu dituen helburuen artean, SPRI Taldeak hauetan eragin du:

BERDINTASUNERAKO SAIL ARTEKO KOORDINAZIO EGITURA DUTEN EUSKO

G3.3 JAURLARITZAKO SAIL KOPURUA HANDITZEA ETA HORIETAN PARTE HARTZEN DUEN ARLO KOPURUA ZABALTZEA

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
EGASeko SLTn parte hartzea	SPRI	2014	2014AN EGINDA
Berdintasun taldea sendotzea SPRI Taldean	SPRI taldea	2014	2014AN EGINDA
Berdintasunerako Herri erakundeen Sarera atxikitzea	SPRI	2014	2014AN EGINDA





G4 ESTATISTIKA ETA AZTERLANETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA

Errealitatea ezagutzeko eta politika publikoekin jorratuko diren beharrak zehatz-mehatz ezaugarritzeko –diren modukoak direla ere–, beharrezkoa da informazio zehatza eta eguneratua izatea politika horien xedeari buruz. Berdintasunaren berriazko arloan, ondokoa egin behar da ezagutza hori lortzeko: estatistika erregistroak aldatu, datu baseak aldagai berriekin definitu, laginak aldatu estatistika lanek zorrotasunez azal ditzaten egoera ezberdinetan emakumeen eta gizonen artean egon daitezkeen diferentziak, eta, nagusiki, genero ikuspegia txertatu euskal administrazioek informazioa jasotzeko eta aztertzeko egiten dituzten lan guztien oinarrian.

VI. Planak lehentasunezkoztat jotzen dituen eta EGASEk bere gain hartu dituen helburuen artean, SPRI Taldeak hauetan eragin du:

G4.2 AZTERLAN ETA ESTATISTIKETAN SEXU ALDAGAIA TXERTATZEN DUTEN EUSKAL ERAKUNDE PUBLIKOEN KOPURUA HANDITZEA

JARDUERA	ARDURADUNA	EPEA	
Web orriaren bidez eskaintzen den informazioan sexu aldagaia islatzea, era progresiboan eta beharrezkoa den informazioa eskura dagoenean	SPRI taldea	2016	2016AN EGINDA

G4.3 AZTERLAN ETA ESTATISTIKETAN SEXU ALDAGAIA USTIATZEN ETA AZTERTZEN DUTEN EUSKAL ERAKUNDE PUBLIKOEN KOPURUA HANDITZEA

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
Datuen aurkezpenetan sexuaren araberako bereizketa islatzea, posible den guztietan	SPRI taldea	2016	2016AN EGINDA



G5 PRESTAKUNTZA JARDUERETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA

Euskal administrazio publikoen gobernantzan genero ikuspegia txertatzeak bi gauza eskatzen ditu, gutxienez: batetik, langileek emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko oinarrizko ezagutzak izatea, eta, bestetik, gizon-emakumeen arteko genero arrail garrantzitsuenak eta ezberdintasun arlo nagusiak identifikatzea. Desberdintasunaren kontrako borroka lehentasun izan dadin erakunde publikoen agendan, ezinbestekoa da arduradun politiko guztiak sentsibilizatzea, administrazioen maila guztietan.

VI. Planak lehentasunezkoztat jotzen dituen eta EGASek bere gain hartu dituen helburuen artean, SPRI Taldeak hauetan eragin du:

G5.1 BERDINTASUNeko BERARIAZKO PRESTAKUNTZA PLANA DUTEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KOPURUA HANDITZEA

JARDUERA	ARDURADUNA	EPEA	
Berdintasun gaian prestakuntzako beharren diagnostikoa egitea	SPRI taldea	2015	2017RA GERORATUTA
Prestakuntza planaren barruan, SPRI Talderako prestakuntza edota sentsibilizazio ekintza bat egitea EGASen eta Emakunderen laguntzarekin	SPRI taldea	2015	2015EAN EGINDA
Prestakuntza jardueretan genero ikuspegia txertatzea	SPRI taldea	(*)	2014AN EGINDA

(*) Hasieran aurreikusi ez zen ekintza.

G5.2 BERDINTASUNeko BERARIAZKO PRESTAKUNTZA JASOTZEN DUTEN TEKNIKARIEN ETA POLITIKARIEN KOPURUA HANDITZEA

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
Prestakuntza planaren barruan, SPRI Talderako prestakuntza edota sentsibilizazio ekintza bat egitea EGASen eta Emakunderen laguntzarekin	SPRI taldea	2015	2015EAN EGINDA
Prestakuntza jardueretan genero ikuspegia txertatzea	SPRI taldea	(*)	2014AN EGINDA

(*) Hasieran aurreikusi ez zen ekintza.



G6 ENPLEGU PUBLIKOAN SARTZEKO HAUTAKETA PROZESUETAN ETA SUSTAPENKOETAN BERDINTASUNARI DAGOZKION EDUKIAK TXERTATZEA

SPRI Taldea sozietate anonimoz osaturik dago, eta beraz lanpostu bat eskuratzeko prozesuan publizitate, meritu eta gaitasun printzipioak bete behar dira. Kanpoko langile berriak taldean sartzeko, hautaketa prozesu bat egiten da kontratatutako hautaketa enpresa pribatuen bidez, ez dira enplegu eskaintza publikoak egiten. Hautaketa enpresa horiek aukera berdintasuna bermatu behar dute eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsona guztientzat, edozein dela bere sexua.

G7 HIZKUNTZAREN EDOTA BESTE KOMUNIKAZIO ELEMENTU BATZUEN ERABILERA EZ-SEXISTA EGITEA

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun egoera hizkuntzan islatzen da (eta komunikazio elementuetan, irudietan barne), eta askotan hizkuntzak berak indartu egiten du egoera hori; izan ere, balio eta rol ezberdinak ematen dizkie batzuei eta besteei. Euskal administrazioek rol garrantzitsua betetzen dute hizkuntza erabiliz gizartea eraldatzeko, eta, horretarako, errealitatea adierazteko duten gaitasuna baliatzeaz gain, errealitatea sortzeko daukatena ere baliatu behar dute.

VI. Planak lehentasunezko zat jotzen dituen eta EGASEk bere gain hartu dituen helburuen artean, SPRI Taldeak hauetan eragin du:

G7.1 HIZKUNTZAREN ERABILERA EZ-SEXISTA EGITEN DUTEN EAEKO ALDIZKARI OFIZIALETAN ARGITARATZEN DIREN DOKUMENTUEN EHUNEKOA HANDITZEA

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
Sozietatearen komunikazio prozesu osoan hizkuntza inklusiboa erabiltzea	SPRI taldea	2015	2015EAN EGINDA



G7.2 HIZKUNTZAREN ETA GAINERAKO KOMUNIKAZIO ELEMENTUEN ERABILERA EZ-SEXISTA EGITEN DUTEN EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN WEBGUNEETAKO EDUKIEN KOPURUA HANDITzea

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
Weben edukia komunikatzeko modu inklusiboetara egokitzea	SPRI taldea	2015	2015EAN EGINDA
Komunikazio instituzional inklusiboa lortzea, irudiei arreta berezia eskainiz	SPRI taldea	2015	2015EAN EGINDA
Praktika egokien eskuliburu bat egitea berdintasunezko komunikazioari begira	SPRI taldea	(*)	2015EAN EGINDA
Hizkuntzaren erabilera ez-sexistari buruzko esperientziak partekatzeke jardunaldietan parte hartzea	SPRI	(*)	2016AN EGINDA

(*) Hasieran aurreikusi ez zen ekintza.

G8 ARAUDIAN BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA TXERTATzea

Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa 4/2005 Legeak aurreikusitako tresna bat da, eta helburutzat du araudi eta administrazio jardueran berdintasun helburuak txertatzea, arauetan edo administrazio ekintzetan proiektatutako jarduera aztertuz eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak areagotzeko edo gutxitzeko ekarpenak ginez.

VI. Planak lehentasunezkoztat jotzen dituen eta EGASek bere gain hartu dituen helburuen artean, SPRI Taldeak ondokoetan eragin du:

G8.3 BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK DITUZTEN ARAUEN EHUNEKOA HANDITzea

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
Arauk egiteko prozesua aztertu eta hobetzea, berdintasun neurriak txertatzeko oztopoak identifikatuz	SPRI	2015	2016AN EGINDA



G9 AURREKONTUETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA

VI. Planak lehentasunezkoztat jotzen dituen eta EGASEk bere gain hartu dituen helburuen artean, SPRI Taldeak ondokoetan eragin du:

G9.1 BERDINTASUNERAKO BERARIAZKO AURREKONTUAK DITUZTEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KOPURUA HANDITZEA

EGASEk esleitzen du SPRI Taldearen aurrekontua, programak eta zerbitzuak gauzatzeko bere aurrekontuaren barruan, eta beraz EGASen ardura da.

G9.3 GENERO IKUSPEGIA AURREKONTUETAN TXERTATZEKO JARDUERAK EGITEN ARI DIREN ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KOPURUA HANDITZEA

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
Prestakuntza planaren barruan, SPRI Talderako prestakuntza edota sentsibilizazio ekintza bat egitea EGASen eta Emakunderen laguntzarekin	SPRI Taldea	2015	2016AN EGINDA
Prestakuntza jardueretan genero ikuspegia txertatzea	SPRI Taldea	(*)	2014AN EGINDA

(*) Hasieran aurreikusi ez zen ekintza.

G10 SEKTOREKAKO ETA ZEHARKAKO PLANETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA

EGASen ardura.



G11 KONTRATU, DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMENETAN BERDINTASUNERAKO KLAUSULAK TXERTATZEA

Administrazio publikoek kontratazioen, diru-laguntzen esleipenen edo hitzarmenen bidez sustatzen duten jarduera ekonomikoa oso tresna interesgarria da jarduera hori berdintasuna sustatzen duen ikuspegi batetik garatzeko.

VI. Planak lehentasunezkoztat jotzen dituen eta EGASEk bere gain hartu dituen helburuen artean, SPRI Taldeak ondokoetan eragin du:

G11.1 KONTRATU EDOTA DIRU-LAGUNTZETAN BERDINTASUNERAKO KLAUSULAK JASOTZEN DITUZTEN ERAKUNDE PUBLIKOEN KOPURUA HANDITZEA

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
Existitzen diren diru-laguntzak aztertzea eta egiaztatzea diru-laguntza horiek lantzean kontuan hartu den genero ikuspegia, zenbateraino aintzat hartzen diren Berdintasun Legearen betebeharrak eta ba ote dagoen berdintasunaren aldeko ekintza positiborik	SPRI	2016	2016AN EGINDA
Aurrerapausoak ematea kontratuetan berdintasun klausulak txertatuz	SPRI Taldea	2016	2016AN EGINDA
Diru-laguntza eta kontratuetako berdintasun klausulen jarraipenean aurrera egitea	SPRI Taldea	2016	2016AN EGINDA

G12 EPAIMAHAIETAN EMAKUME ETA GIZONEN ORDEZKARITZA OREKATUA SUSTATZEA

Ez da aplikagarria SPRI Taldean.

G13 KONTSULTA ETA PARTE-HARTZE ORGANOETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA

Ez da aplikagarria SPRI Taldean.



3. BERDINTASUN GAIETAN ESKU HARTZEKO ARDATZAK.

Gobernantza hobetzeko neurriez gain, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planak esku hartzeko hainbat ardatz barnean hartzen ditu berdintasun gaietako lehentasunezko ekintza esparruetan. Ardatz bakoitza hainbat programaz osatuta dago, eta horien bidez lanerako lehentasunezko ildoak zehazten dira. VI. Planak 8 programa ditu guztira, 3 esku hartzeko ardatz hauetan sailkatuta:

ESKU HARTZEKO ARDATZEN ETA PROGRAMEN ARTEKO HARREMANA	
I. BALIOAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK AHALDUNTZEA	1. Programa: Balioak aldatzea
	2. Programa: Norbere ahalduntzean laguntzea
	3. Programa: Ahalduntze kolektiboan laguntzea
	4. Programa: Ahalduntze soziala eta politikoa laguntzea
II. GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUNKIDEA	5. Programa: Erantzunkidetasuna eta denboraren erabilera berriak
	6. Programa: Kontziliazioa eta prebentzioa
III. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA	7. Programa: Sentsibilizazioa eta prebentzioa
	8. Programa: Antzematea eta arreta

Programa bakoitzean helburu estrategiko edo orokorrak zehazten dira, programa globalki eta modu koherentean lantzea ahalbidetuko dutenak.

Helburu estrategikoak, bestalde, helburu operatiboetan zehazten dira gauzatu ahal izateko, eta horietako bakoitzean zehaztuta daude inplikaturako erakundeak eta jarraipen nahiz ebaluazio irizpideak.

Helburu estrategiko eta operatiboek azaltzen dituzte plan honen bidez lortu nahi diren helburu eta xedeak, eta beraz, abiapuntu gisa erabili behar dira planaren garapenean inplikaturako erakunde bakoitzak gauzatu behar dituen ekintzak definitzeko garaian.



I. BALIOAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK AHALDUNTZEA

PROGRAMA: BALIOAK ALDATZEA

1.1. Helburu estrategikoa. Balio aldaketa sustatzea, pertsonen beren sexuaren arabera esleitutako genero estereotipoak eta rola ezabatuz.

1.1.1. Helburu operatiboa. Erantzukizun ekonomikoa nagusiki gizonekin eta familiaren eta etxearen ardura batez ere emakumeekin lotzen duten umeen, gazteen eta helduen kopurua murriztea.

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
Martxoaren 8ko kanpainaren hedapenean laguntzea (Emakunde)	SPRI Taldea	2014	2014AN EGINDA
Berdintasuna sustatzea helburu duten berri/gertaera/informazio garrantzitsuen zabalkundearen laguntzea	SPRI Taldea	(*)	2014AN EGINDA
Genero ikuspegia duten zientzia zabaltzeko jarduerak edota haurrentzako tailer bereziak sustatzea	SPRI Taldea	(*)	2014AN EGINDA

(*) *Hasieran aurreikusi ez zen ekintza.*



1.1.5. Helburu operatiboa. Eredu maskulino tradizionala zalantzan jartzen duten eta berdintasunarekin koherenteak diren jarrera eta portaerak dituzten gizon gazte eta helduen kopurua handitzea.

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
Gizonduz ikastaroak zabaltzea	SPRI Taldea	2014	2014AN EGINDA

3. PROGRAMA: AHALDUNTZE KOLEKTIBOAN LAGUNTZEA

3.1. Helburu estrategikoa. Emakumeen laneratzea, lan baldintzak eta mailaz igotzeko aukerak hobetzea, taldeen eta egoeren aniztasuna kontuan hartuta.

3.1.8. Helburu operatiboa. Enpresa eta erakunde pribatuetan berdintasun planen kopurua handitzea.

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
Laguntza eskaerak egiten dituzten enpresei buruzko informazioaren bilketan langileen zerranda sexuaren arabera bereizita jasotzea, eta berdintasun planak, kontziliazio planak eta abar baleude, horiek ere bai	SPRI	2016	2016AN EGINDA
Laguntzak baloratzeko irizpideetako bat berdintasun, kontziliazio, eta abarren planak edukitzea izan dadin aztertzea	SPRI	2016	2016AN EGINDA
SPRIren webgunean emakumeekin zerikusia duten berriak txertatzea	SPRI	(*)	2014AN EGINDA

(*) Hasieran aurreikusi ez zen ekintza.



4. PROGRAMA: AHALDUNTZE SOZIALA ETA POLITIKOA LAGUNTZEA

4.1. Helburu estrategikoa. Emakume elkarten mugimenduak sustatzea eta emakumeak horietan parte hartzera bultzatzea.

4.1.3. Helburu operatiboa. Politika eta gizarte arloan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea, parte hartzeko formula berrien bidez.

EKINTZA	ARDURADUNA		
“+ digital@-Lankidetzaz” eta “Zuzendaritza karguentzako gaitasun digitalak (BT)” laguntza programetan parte hartzen duten emakume elkarteei buruzko datuak jasotzea	SPRI	2014	2014AN EGINDA

4.2. Helburu estrategikoa. Erabaki eta eragin guneetan emakumeen sarbidea, presentzia eta partaidetza handitzea.

4.2.2. Helburu operatiboa. Sektore pribatuko enpresetako erabaki guneetako zuzendaritza postuetan eta organoetan emakumeen kopurua handitzea.

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
ETEen Ondorengotza programan genero ikuspegia txertatzea, ETEetako emakumezko “ondorengoei” buruzko datuak jasoz	SPRI	2016	2016AN EGINDA
Lidergo eta zuzendaritza ikastaroetan genero ikuspegia txertatzea	SPRI	2015	2014AN EGINDA



II. GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUNKIDEA

5. PROGRAMA: ERANTZUNKIDETASUNA ETA DENBORAREN ERABILERA BERRIAK

5.2. Helburu estrategikoa. Emakumeek aisialdian eta autonomia/independentzia ekonomikoa lortzeko ekintzetan ematen duten denbora handitzea.

5.2.2. Helburu operatiboa. Genero arraila murriztea emakumeek eta gizonek ordaindutako lanari eta prestakuntzari eskaintzen dioten denboran, lan karga osoa handitu gabe.

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
Prestakuntza ikastaroetara joaten diren langileak genero ikuspegitik aztertzea. Azterketa hori aurrekontuaren memorian sartzea	SPRI Taldea	2014	2014AN EGINDA

6. PROGRAMA: KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDEA

6.1. Helburu estrategikoa. Enpresen kultura eta jarduera kontziliazio erantzunkiderantz aldatzea.

6.1.2. Helburu operatiboa. Administrazio publikoak eta sektore publikoko beste enpresa batzuek kontziliazio erantzunkiderako hartutako neurrien kopurua handitzea.

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
Langileek bitzitza pertsonala, familiarikoa eta lanekoa erantzunkidetasunez kontziliatzeko izan ditzaketen premia desberdinak identifikatzea eta kontziliazio neurriak premia horien arabera egokitzea	Negoiazio kolektiboa	2015	2015EAN EGINDA



6.2. Helburu estrategikoa. Zerbitzuen ordutegien malgutasuna eta estaldura zabaltzea.

6.2.2. Helburu operatiboa. Herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuen ordutegien malgutasuna zabaltzea, bertako langileen kontziliazio erantzunkidea bermatuta.

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
Telematikoki egin daitezkeen barne prozedura administratiboen kopurua handitzea	SPRI Taldea	2016	2016AN EGINDA
Telematikoki tramitatu daitezkeen laguntza/zerbitzuen kopurua handitzea	SPRI Taldea	2015	2015EAN EGINDA



III. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA

7. PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

7.1. Helburu estrategikoa. Indarkeriarik gabeko portaera erduen garapena bultzatzea.

7.1.1. Helburu operatiboa. Pertsonak euren sexuaren arabera maila handiagokoak edo txikiagokoak direla adierazten duten hedabideetako irudi eta edukiak kentzea, bai eta pertsonak sexu objektu huts bezala aurkezten dituztenak edota indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edota bultzatzen dutenak ere, eta bereziki, emakumeen kontrako indarkeria.

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
Kanpainetan emakume eta gizonen irudiak genero estereotipoetatik urrun daudela bermatzea	SPRI Taldea	2014	2014AN EGINDA

7.1.3. Helburu operatiboa. Ondoko programa eta jardueretan parte hartzen duten pertsonen, batik bat mutil eta gizonen, kopurua handitzea: desberdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren arteko harremana agerrarazten dutenak, prebentzioan laguntzen dutenak eta indarkeriarik gabeko gatazken konponbidea sustatzen dutenak.

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
Azaroaren 25eko ekintzak hedatzea	SPRI Taldea	2014	2014AN EGINDA





8. PROGRAMA: ANTZEMATEA ETA ARRETA

8.2. Helburu estrategikoa. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei babesa eta arreta osoa bermatzea.

8.2.3. Helburu operatiboa. Beren lantokietan jazarpen sexual eta sexisten kontrako prebentzio eta arreta protokoloen estaldura duten pertsonen kopurua handitzea.

EKINTZA	ARDURADUNA	EPEA	
Sexu jazarpenari aurre egiteko prebentzio eta arreta protokolo bat egitea eta ezartzea	SPRI	2015	2015EAN EGINDA